



LUKENE SUGEGORRI TXIRENE




Lukene Sugégorria
1




Lukene sugedorri bat da. Oso atsegina da.
Berak ez die umeei inoiz koska egin barazkijalea da-eta.
Belarra, zuhaitzen hostoak, loreak, barazkiak eta fruituak
jaten ditu.




Goizetan, belarra jatea gustatzen zaio,
orduan baitago berde, heze eta urtsu.




**Azak eta urazak bere gustukoak dira;
ez, ordea, azalorea.**



**Udaberrian zuhaitzen hostoak nahiago izaten ditu,
bigun eta fresko daudelako.**



**Marrubiak ditu udako fruiturik gogokoenak;
negukoak, aldiz, sagarrak eta laranjak.**



**Egunero loreak gosaltzen ditu.
Gaur, gizarajoa, gaixorik dago
jasmin gehiegi jan duelako.**